



EiTBren adierazpena “galderarik gabeko kazetaritzaren” inguruan

1. EiTb taldeak ez ditu begi onez ikusten gero eta ohikoago bihurtzen ari diren zenbait jokabide komunikatibo kezagarri. Hala nola: “ galdetzeko aukerarik gabeko prentsurrekoak”, “galdera kopuru mugatu bat soilik onartzen dutenak”, “pantaila bidezko agerraldiak”, “errealizatutako telebista-seinale itxien distribuzioa” edota “alde zurretik editatutako adierazpenak”.
2. Guztiek ere informazioarako eskubide unibertsala murrizten dute.
3. Kazetaria, subjektu pasibo bihurtzen dute. Izan ere, lanabes nagusia ebasten diote: galdera. Galderarik gabe kazetariak ezin du lortu ez argibiderik, ez xehetasunik, ez ziurtapenik, ez eta testuingururik ere albistegai diren gertaera eta adierazpenen gainean.
4. Galderarik gabeko kazetaritzaren bidez herritarrei ohostu egiten zaie sistema demokratiko ororen tresna nagusietako bat: informazio kontrastatu baten eskutik landutako espirtu kritikoa.
5. Hau guztia horrela izanik EiTbko zuzendaritzak bat egiten du telebistako, irratiko eta Interneteko Erredakzio Kontseiluek adostutako irizpidearekin eta honenbestez, talde honetako albistegietan espreski aipatuko da bertan eskainitako adierazpenen nahiz irudien jatorria baldin eta 1. go puntuan aipatutako moduren batean jaso badira.
6. Bide batez eta EiTb euskal gizarteari zor dion zerbitzu publikoa kontuan hartuta, Euskal Irrati Telebistak honako dei hau egiten die gizarteko agenteei: aipatutako portaerak bertan behera utzi eta lehenbailehen ahalbidetu ditzatela baldintza egoki batzuk non eta kazetariei bide emango zaien informazio zehatza, egiaztatua eta kontrastatua lortzeko.
7. Era berean, EiTbtik gonbitea zabaltzen zaie gainerako kazetari eta informazio taldeei ere hemen aipatutako eskariarekin bat egin dezaten.



Declaración de EITB sobre el periodismo sin preguntas

1. El grupo de comunicación EITB manifiesta públicamente su disconformidad con la proliferación de una serie de prácticas comunicativas preocupantes. Se trata de las "ruedas de prensa sin opción a preguntas", "las comparecencias con número de preguntas limitado", "las declaraciones a través de pantalla", "la distribución de señal de televisión ya realizada", o "las piezas declarativas ya elaboradas".
2. Son prácticas que restringen el derecho universal a la información.
3. Convierten al periodista en un sujeto pasivo despojado de la esencia de su oficio: la pregunta; esa pregunta que puede servir para aclarar, precisar, contextualizar o confirmar un hecho o una declaración noticiable.
4. Ejerciendo un periodismo sin preguntas se priva a la ciudadanía de una herramienta imprescindible en todo sistema democrático: el espíritu crítico obtenido por medio de una información contrastada.
5. Ante estas circunstancias la dirección de EITB se adhiere al criterio consensuado por los Consejos de Redacción de televisión, radio e Internet según el cual los servicios informativos de este grupo de comunicación harán mención expresa del origen de las declaraciones y/o imágenes ofrecidas siempre que hayan sido captadas en alguno de los modos descritos en el punto 1.
6. En la misma línea y basándose en su vocación de servicio público, Euskal Irrati Telebista hace un llamamiento para que los diversos organismos que lleven a cabo este tipo de prácticas comunicativas abandonen las mismas, y permitan a los periodistas obtener una información rigurosa, veraz y contrastada.
7. Asimismo, insta y anima al resto de periodistas y grupos de información a que sumen sus voces a este requerimiento.

Septiembre 2013